

Getxo > MEETING <



Martxoak 7

Zeintzuk dira saioan parte hartu dutenen LinkedIn-eko profilak berrikusi ostean eman ditugun aholkuak? Hona hemen laburpena:

Lehenik eta behin, banakako hausnarketa bat: Zure LinkedIn-eko profilak benetan islatzen al du zure lan-posizionamendua zuk nahi duzun bezala?

Profil bakoitza aztertzean, hainbat alderdi nabarmendu ditugu:

- **Profileko argazki profesionala:** Profesionala den profileko argazki bat erabili. Ez erabili *selfie* edo kalitate gutxiko argazkiak. Profileko argazkirik ez izatea ez da aukera bat.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



- **Zure URLa pertsonalizatu:** Tresna horren bidez, zure profilaren URLa pertsonalizatu ahalko duzu. Ahal izatekotan, zure izen-abizenak erabili, errazagoa izan dadin zu aurkitzea eta partekatzea.
- **Goiburu erakargarria:** Ondo laburbildu ezazu nor zaren eta zertan aritzen zaren. Garrantzitsua da laburki idaztea atal honetan, bilatzaileetan agertuko den informazioa baita.
- **Zure profil profesionala osatu ezazu:** Informazio esanguratsua eman, hala nola zure lan-esperientzia, prestakuntza, gaitasunak eta ziurtagiriak, halakorik izatekotan. Bereziki, eman nahi duzun informaziorik garrantzitsuena, zure jardueran profesional gisa kokatzeko.
- **Zure ibilbidea azaldu:** Ez eman segurutzat irakurtzen zaituen pertsonak zure lanbidea ulertuko duela. Argi eta garbi azaldu zure esperientzia, espezialitateak eta lan-lorpenak. Zure sektorerako giltzarri diren hitzak erabili.
- **Nabarmendutako atalak erabili:** LinkedIn-eko nabarmendutako atalak ahalik eta gehien erabili zure lorpenak, proiektuak eta trebetasunak nabarmentzeko. Zure zerbitzuak eta esperientzia behar bezala erakusten lagunduko dizu.
- **Gomendioak eskatu eta eman:** Gomendioek sinesgarritasuna ematen diote zure profilari. Zure jarduerari edo esperientziari buruz iritzi bat utzi dezaketen pertsonen gomendioak eskatzeko aukera aztertu. Zure komunitateko beste pertsona batzuekin ere gauza bera egin dezakezu eta ekarpen bat egin.
- **Eguneratuta izan ezazu zure profila:** Garrantzitsua da zure profila eguneratuta izatea eta zure azken lan-esperientziak, egindako prestakuntzak eta izandako lorpenak jasotzea. Komeni da noizean behin sartzea eta berrikuspenen bat egitea.
- **Kontaktuen sare garrantzitsu bat eraiki:** Zure sektoreko pertsona esanguratsuekin jarri zaitez harremanetan. Kontaktuen sare sendoa aukera berrien eta lankidetzaren profesionalen atea izan daiteke.

- **Plataforman parte hartu:** Aktiboki hartu parte, esanguratsua den edukia partekatuz, beste pertsona batzuen argitalpenetan idatziz eta zure artikulua sortuz.

Espero dugu aholku hauek erabilgarriak izatea. LinkedIn-en eta hurrengo Getxomeeting saioan ikusiko dugu elkar!

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

